


ZER

ALDIZKARIA

391n. zenbakia
2013 MARTXOA

Bizkaitarrei Bizkaieraz



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com



Landajuela,
Anton IV.



IZADIA
ZAINDU II

Sagardoa

Klaudio Barroeta



EUSKERAZALEAK

Urteroko Batzar Nagusia, Epaillaren 21ean egunean

Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

2012-2013 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 45. IKASTAROA IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 8an

45. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 8 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

EUSKERA ZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebago orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 30 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errokoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Diseinua, maketazioa
eta inprimaketa: Ibegrafik
www.ibegrafik.com

LANDAJUELA, Anton, IV.

35.- IRUÑA

Ogetabat urte, Arratia-tik at gitxi ibilia, gitxi ibilia ta ikusi be oso gitxi ikusia nintzan. Ala-ta bere jayoterria, lagun adizki-deak, etxera ta danak atzean itxirik españarren morroi doakabetsua izatera naroardie: Iruñara.

Eundak gudarigai bultziratu ginduezan Bilbon, Iruña-rakoak gitxi batzuk besterik ez, eta adis-kide ta lagun zarrik bat bera bez.

Aldean geunkazan soñekoak kendu arazo ta kakiz berjantzirik, batzuentzat andiegi ta bes-tetzuentzat txikiegiak izanik, eta mearregiak, irripar eraginkor gebiltzazan tximinoak bagintzazan Iruña-ko kaleetan zear.

Lenengo bost illabeteak etxeko biziera lakoak izan ezarren onez emon genduzan, zigorpera txirrist egin geinkean arri labanetatik urrundurik eta, araundian artoski genbiltzanzalako.

6gn illabetea, au zan garagarraren 17an Cuidadela eritxon tokian jagole ta zelatari gengozean, nengoan lekutik beragoan, Ciudadelako enparantza, gizontzar morroskoak mai baten inguruan, andrazkoen batzuk be, arteko ziralarik. Alako batean...España! entzun neban, abotsa nondik etorren ez-nenkiala.

Gaua illundirik egoan, eta morrosko ta andra areik tximista bazen askarrago aldendu ziran egozan leku aretatik. Militarrak ziran.

Ondoa ez-neukan lagunik eta, zer egin neikean alako estualdi baten? Fusilla zan neukan lagun bakarra, et balak txispa egiteko lekuan ipiñirik, zer gertatukozan geldirik nengoan.




Bai-etorran kabua ondoan gudari bat ebala eta, alkarrri geure agurra egiñez gero itaundu neuntsoen, zer jazo zan an beko landan.

Iñork ezer etzekian, eta gudari lagunakana jon nintzanean, an bere erantzun bardiña jaso neban ezer bere ezekiela.

Illabete berean, 18gn goizez guk ezer jakin ezarren, zer edo zer bai ekien koartelea, ordu bete lenago etorri jakunda, txanda barria.

An gengoan gudaletxean, soñekoak kendu barrik, eta laster baten ekarri ta emon euskuezan txokolate irudiko paketetxuak, gaxo zaurituak ara-orra erabilteko ogetxoan bere bai.



Danok gengoan urduri, eroapena galdurik, kez-kati, kezkatu ta artegetasun aretan gengozenla-rik, txuskero bigarren izena daroen kabo zarrak aoa zabaldu eban, eta geroago aitatu dautsuedan “txokolate paketeak”, zauriak osateko gaiak zi-rala esan euskun-eta, ondo zaindu genduzan.

Olantxe izan gintzazan goizeko orduak aurre-
ra egiten eben artean, ogibitarteko txiki mirriz
zutik jan-eta, buruz aurre, gerturik egozan ka-
mioi zarretara sarturik, algeduan eran Zarago-
zara-ñoko bidea egitera.

Ibiliz eta beti aurrera joanez Muskaria-raño,
Tudela-raño eldu gintzazan, Naparroa-ren ego-
musturra. Emengo bidertzean egoan ume ta
gizadiak guk genkian baiño geiago ekien-da,
arrera onez artu ginduezan. Eta bereala asi ziran
urlie erria “geurea da”, besteen bat be beingoan
“izago da” esaten, España-ren zalbatzalleak gin-
tzazala usterik. Areen ustea ta gurea ez etozan
bat, zer gertatzen zan guk ez genkian-da.

Geldialdi labur bat egiñez gero, barriro bere bi-
deari loturik aurrera goiazan, Zaldia-raño. Eldu
gintzazan noizbaten, koartel edo gudarietxe ba-
ten ateetara. Jatsi giñan da, barrura sartu, koar-
tel aren iguru-mariak ikustemiñez. Barruratu

eta enparantza txiki batean aurkitzeak, gelditu
egin nintzan.

Enparantza esanik dodan lez txikia izanik, alde
batean korta itxurazko zaldietzauntzat utsik,
baiña alako etxauntza txoko batean gudaria
egoan zaldi bi zaintzen eta, beste zeregin ba-
tzuek egiten. Enparantza-ren erdian maiari in-
gurua egiñik, lasai ezarririk, iru gizonetzko ego-
zan: Ogibidez izardun zan bat eta, beste biak
“baturroak”, kakizko soñeko barriz jantziak,
gudaketarako deiaren zai egozanak. Eta alan
gengozalarik beste ateen batetik kamioiak bete
euskuezan, ingurumari izan ziran kamioiak.

Goizez jan genduan ogibitatekoz gengoan, jo-
laserako baiño aoko ortzidiarentzat lana aurki-
tzea obe izanik, ez bat eta ez beste egin gabe,
barrien barriz berebilletara. Barriro gatoz len-
go, bidetik, Iruña-rako lorratzari jarraituz. Ezin
esan dautzuet zer ordu zanik eta, Iruña-ra eldu
gintzazanean gauerdigoizalde izan zala, bai
ostera.

Asteko izateko zan zera, gizona gizona ilten
asirik egoan. Astirik eta tarraka-marraka urian
sartu gintzazaneko gizonak igezka ebiltzanak,
txispadunak atzetik eta txispa eginik amorrus





jarraitzen eutsalarik. Asiera besterik ezan izan. Gero etozan geroakoak.

Garagar illaren 17an, gauan, aditu gintzazan zer edo zer gertatzen zala, zer gertatzen zan ez genialarik gengoan orduetan bereta.

Ikusi ezarren guk, sua gero eta biziago eta urrago geunkan. Bost tiroaz joaten gintzazan len, espetxe eta beste lekuen batzuetara jagole egitera; orain azkeneko egunetan barriz, kartutxera izeneko orreik beterik darabilguz. Egn batez “reten” egiten gengoalarik, GENERALA be jo euskuen, gudarien, gertakera ikusi al izateko. Agintan euskuena ondo betetan genduan, zertarako izan zeitekean jakin gabe.

Gudaritzan 6 illebeta daroadaz, garagarren illean gengoan eta ondo nondik eta norako bidean etorren urdaritasunak egunetik egunera sustriak emoten egoan, artegatasuna be, alakoxea zan eta. Nagusiengandiko agindubearrak zorrotzagotzen joiazan, eta neurri berean gidariak, be, alaxe eginbearrean gintzazan, esaten euskuena zeatzago bete eikeguan.

Labea berotzen egoan suaren barririk ez-genkian ezertxorik be, garragar illaren 17 gau arte. Egunak geroago bere ez-genkian gauza andirik eta garbirik. Lapikoa baiña guk jakin ezarren borbor izango zan, egozten, ziur askorik.

Beste zerrenda batzuetan GENERALA aitatu dotana, oraingoz bi bider aditzera emotera nartortzue.

Egun bitan, bat bestearen atzean da otoz-otoan GENERALA deia izan izan genduan, “disziplinina” ta bilkura nola egiten genduan nagusiak ikusi al izateko.

Suak, ikusten eztogun suak labe berotua beroagotzen diardu.

Izkilluak, fusil izeneko izkilluak egun areik arte arazan izaten genduazan, azken batean baiña, guda-sua biztu baiña lentxoago, oe-buruan ipiñi arazoten ginduezan.

Eltzea, lapikoa borbottsuago egiten ari dala dirudi. Balak, guda-ornikai edo ziranak ziralakoak espetxe ta beste toki garrantzitsuen bat zaintzera joaten gintzazanean, lana amituz gero kendu egiten euskuezan.

Egun areitan baiña garriko zakelak biak beterik eta beti ta beti gurekin erabili bear genduzan, otoz-otoko bilkura deien bat eta, nonbaitera iraduz joanbearren bat izango ba genduan, al genduanik azkarren gertaturik izan geitean.

Guk gudari gixago besterik ezgiñanok, guda egiteko zirduen gertalanarekiko izpurrik ez zipitzik ezgenkian.

Zaldua-tik, Zaragoza-tik ekarri genduzan izkifllu ta soñekoak gugandik eroatera etorri ziran arte, alantxe gengoan, ezer jakin barik, itsu eta gor.

Etorten bai ziran gizonak, eta bakotxak artzen ebana arturik joaten ziran euraen lekuetara, karrixaka ta gogotsu.

Gudariak etxean, koartelean gengoan, egun batez baiña bazkaltzen gengoalarik kapitoiak itz: «Biar goizean goiz beste ibiltaldi bat egingo dogu Bidasoa-ko Bera-ra». Batzuek ixilik, besteen batek «ori dot eta». Meatz errietatik, Enkartaciones-etatik gu baiño beranduago etorriak eta urteen bi zarrago zanak eskua jasorik «biba ori ta olakoak» esatera ausartu zan. Abizena Lanbarri eban. Mutil ona zan, lagunartean beti giro onekoa eta politikatzaz ezaban iñoiz ezer esan. Besoa jasotze arek zerbait bai ekiala adierazo gura euskun.

Eguna etorri zanean kaleratu gintzazan, ez baiña ain goiz kapitoiak esan euskun lez. Arratsaldea zan eta, Iruña-ko zoko baten gengoan zer egin bear ete genduanaren zai. Gengoan leku aretan

bi emakume mutxurdin ebiltzazan atzera ta aurrrera, zerbait bai-zirala esan gurarik.

Berebillak bai etozan, ni eroango ninduna arrautz osokola lango txiki kazkarra. Amabosten batek igon gintzazan bere ganera, orduen beten geldirik egoteko. Eta ganean gengoanean, non ara etozan mutxurdin biak gurdi baten eroanala eskapularioz gudarien paparrean jartzea. Beste bat be, an ebillan, urbil egoan estankotik kebedarra arturik gudarien artean sakabanatzen. Garriarte zabala, tripotx andia, gogotsua eta abedea zan.

Non eta zelan eraturik ez genduan aurkitu, eta gengoan bezela urten gintzazan ezertoki barik, alkarri ta berebil txikiaren ertzai ondo loturik.

Ibili eta joan, joan da ibili, bideak beteko «caravana» egiten genduan nora eta zertara goazen ezgenkiala.

Eta zeintzuk bidetatik giñoiazan?. Iruña eta Nafarroa-ren barrik orain bere gitxi dakit, ordu artan askozaz be, gitxiago. Estakit zein bidetatik joan giñan, izarpean gaua igaroz goizean goiz barrero bere burdira; eta ezin dot gogoratu





Zubieta ala Goizueta izan zan, erriko lenengo etxeetan aurteginik, eguzkiaren lenen printzetan Bidasoa-ko Beran gozozan.

Bidasoaren errian, Bera-ko etxeak utsiturik egoazenen irudiko ziran, iñor ez paitzan agiri. Karabineru gitxi batzuk agiri ziran, guda turuta entzun barik edo, bakerik zerutarrenean.

Errian jatsi ta, oñez giñoiazan guda-tokira, Endarlaza-ko zubi-alderantz egoan basora. An zan suak eta garak inperua irudian. Santander-koa ta biok fusil ametralladorakin ardibide baten gengoan geure buruak zaindu ezinik. Teniente beratxoago egoan, eta gure izkillua ez entzutean berak, aulan iñoskun: «Ametralladora bantan aquella casa». Eta guk, akella ta akulla non ziran begiratu barik, eta burua lurean sarturik, tarra-tatak ereñozoten geuntzan da, danak pozik egozan.

Olan emon genduan eguna, tiro-tiroka, bizitzari eutsi arazoten. Ilundu baño len barrero erriratu gintzazan, onez eta pakez.

Bera-ko errian ez jan da ez edan, gaba emon bearran gintzazan bakoitzak al eban eran, urrengo goiza etorriko zan arte: Santiago eguna.

Santiago eguna Bera-n emon eta, barrero bere lengora nator: norako bidan sartu gintzazan ez-takidala. Goizan goiz kamioietan, bideak zear oñez, basoetan gora ta mendietan beera arru andietatik aurrera etzaien lorratzen billa.

Santisteban-en bazkaldu genduan bein, nondik gentozan ezgenkiala. Beste bein ibiltekoak ibilirik Aya-ko arkaitzen ur samartik Oiartzun-go erriaren egal bateraño etorri gintzazan, gau igarotzera, Mola-ren gudariak.

Ia illundurik egoan, ondoko baso tunturrean gudari gorriak ikusten genduzan, da illundu zanean etxondoan UHPek entzun be bai.

Zer egin ginkean alako une bildurgarri aretan? Moltzo batz geurekautan urten, etxondoan arakatu; ukuluan, kortan aska aienuka egoan erreketete bizargea ikusi eta lo egiteko lekua aurkitu. Lagun bi beien askapean sartu gintzazan, ixilik eta muxilik.

Kabua, gure kabua goizalderuntz beren mutillen billa nabaitzen genduan da, bildurraren bildurrez lagun biok ixilik.

Aurkitu ginduezan. Ni jagi nintzan da, bestea bere bai. Etxean zan aterik bildurgarrientan jagole ipiñi ninduen, da bildurrez eta dardarka antxe egonbearrean nintzan, egunaren argia ikusi arte.

Amaitu zan gaua ta etorri zanean eguna, danok asi gintzazan aldapetan beerra, Oiartzun-era. Goiza zan, da goizegi zalako edo, andrazko bat ikusi genduan elizatk karrasika urtetan. Zoroa irudian.

Lezo-rako bidea erreketek aurrera jo eben, da nire laguna ta biok eliz-torrera bialdu ginduezan, andik, ezer ba-zan tirokatzeko.

Aurrera jo eta atzera egin, kamioi txiki bat ikusi genduan illez beterik Oiartzun-go illerrirako bidean.

Bein goian da beste bein bean, egun batzuk emon genduzan Oiartzun erri aretan.

Antxe, Oiartzun-en itxartu nintzan zer egiten giñarduan. Eliz-torrean gengozeanean batzokia aurkitu eben da, barrura sarturik eizan arasa txiki, ingi ta ingurrazti, ikurriña ta enparauak enparantzan erre ebezen. Erre be danakaz bat eginik.

Orduantxe itxartu nintzan, onduantxe begiak zabaldu, orduantxe neure Erri onen aurka nenbillala azur-muñetan nabaitu. Gudatik iges egiteko beste batzuek be bairazirala oartu.

Oiartzun-go egunak ba-kez emon genduazanean, Pikoketa-rako bidean jarri gintzazan, erreketek ta gudariek batean. Erreketeak aurretik eta gudariek arein orpoan basoan sakabanaturik.

Ibilian gorantz egiñez tiro gitxi batzuek entzun genduzan, dalako baten ondoan neunkan asturias gudaria, lurrera jausi zan, aienaka. Eper-mazallan jo eben.





Zaurituari laguntzen gengozanean, kapitaia be gurekin, erreketek aurrera Pikoketa-ko etxe-raño. Besteak be aguro eldu giñan.

Pikoketa-ra iritxi gintzazanean 13-15 gizon lurrean egozan etzunik; batzuek oraindik arnasaz, besteak arnasaz barik. Arnasadun da arnasa bakoak azken-azkeneko epaiaren begira. Pistolarik ezeukan erreketek, eukanari eskaturik, tiroka inarduan illik eta ez ilgo bai ilgo egon ziran danai. Tiro de gracias jotea izan zan.

Bai egoan Pikoketa-ko etxe zar aretan, ateurrean erailik izan ziranak baiño, Irun (Urantzu) ra igesian alde egin ebenak.

Erreketek arein atzetik jarraiki, eta gu guda-riok, arreik-andi etorri leitekezan barrien zai izan gintzazan, izentatu euskuezan lokietan zur.

Errekatxo txikia etorren Pikoketa-tik urbil sasi-rik-sasi eta, bidetxiorra be uraren ondoan. «Zagoz emen» esanik, aurreruntz egin eben.

Kabuak esan da nik egin, bakarrik nintzan izkillua lepoan arturik amabost-ogei urratzen barruan, zenbait arazo aztertzeke aukerarik egokienean. Eta aukera egokienean nintzalarik, ogetabien bat urtetako neskatillak, burua agertu sasi-urartetik. Ezkutatuak bi izan ziran. Biga-

rrena be, lenengoak egin ebana egin eban. Burua argitaratu, nik ikusi eta, arei k berezkutatu, une laburrean izan zan.

Begizko keñu idurikoa egin neutsien. Zer egin neikean besterik, uretan blai bustirik eta neure alderdikoak zirala jakinik geroz! Ezertxorik esan gaberik, pititxo bat berago jatsi nintzan, ez ikusia eginbearrez.

Eta alan nengoalarik, erreketek bi etozan “gorrien” atzean jarraika joan ziran areitakoak, arratsaldeon esan ondoen neska biak ikusi ebazan.

Gora! garrantz esanik, neska biak jagi ziran, okotxeraño uretan da biek bardin jantzirik. Erreketek biak aurretik eta neskatillak orpoan eroezela alde egitean, ezpanen barruan neukena esatera ausartu nintzan, erdi ixilik bazan be, Gaxuak, gazuak. Ea batak, nire itzak entzutean, eskuan eukan puñuelo gorri bustia, atzeko aldetik, lurrera jaurti eban. Bilbo-ra etorrita geroagotan be, neugaz neukana. Pikoketa-ko etxondoara ez nintzan geiagotan urreratu. Inguru-minguru nenbillan.

Eta lagunuen esanetatik dakit, ildakoen ondoan izan zirala, esaten eutsazien agokadarik garra-tzenak entzun da entzun azken ordu goibelarrate. Egun berean erail ebezan.

(Jarraituko da)

EUSKAL ASTEKO ITZALDIEN AURRETIK, Munetxek esandakoak.

2012 garren Zemendiko 26an.

SARRITAN IBILTEN NAZ
BILBOKO KALETAN,
GORPUTZEKO SASOIA
OBETU GUREAN.

EUSKERAZAEAK BE,
BANAN TA TALDETAN,
EKIN TA EKIÑEZ DABIZ
EUSKERA LANETAN,
ERAKUTSIZ FRUTUAK
EUSKERAZKO ASTEAN.

2012 garren Zemendiko 27an.

GAURKO IZLARI DOGU
PAULO AIZKIDEA,
EUSKELZALE SUTSU TA
IDAZLE TREBEA.

ZER EN TA EUSKERAZAINTZAN
DOGU LANGILLEA,
BURUZ ARGIA ETA
BIOTZEZ NOBLEA:
AURREAN ZAI DAUKOZU
ENTZULE TALDEA.

2012garren Zemendiko 28an.

OTZARA BETE LORA,
EDER TA POLITAK,
OTZARA BETE FRUITU
USAIN ONEKOAK.

EUSKAL ERRIAN DIRA
BENETAN JAI OAK,
ETA PLAZA BARRIAN
DOTORE DAGOZANAK:
ORREN ANTZA DAUKIE
LARREAREN BERBAK.

2012garren Zemendiko 29an.

EUSKERAZALEAREN
LAGUN ZARIENAK,
ARTU BENE BENETAN
ZORION BETEAK.

EUSKAL ERRIKO KROSSAN
DOZUEZ IZENAK,
SEGI TA SEGI AURRERA
BASTARTUZ BILDURRAK,
SARIA LORTU DAIAN
BETI, GURE EUSKERAK.

SAGARDO BOTILLA.

2012ko zemendia.

EUSKERAZALEAK EUSKAL ASTEAN

Klaudio Barroetaren itzaldia (laburpena)



1.- Sagardo botilla baten egiturea ezagututeko,
“katillutxu baten “ipuintxua .

2.- Eredu ezbarðiñak eta aldaketak.
“Botillen salmenta ostalaritzaren

3.- Txotxarekin lotu genduan,
Eta ori sektorearentzat barrikuntza andia izan zan, ta diru iturri gar-
rantzitsua sortu eban” sagardogilleak diñoanez.

4.- Sagardo edaleak ugaritu.
“Gizartea aldatu egin da eta orregaz batera jendearen exijentziak
be bai. Beraz egokitu ta gaurkotu egin bear da”. Esate batera-
ko Txotx denboraldian, larunbat eguardiz parranda luzatzeko
etortzea, kontuan euki bear da.

5.- Krisia ta erremedioak.
Krisiari beldurra baño errespetoa deutso sagardogilleak.
Eta baikor agertzen dira geienak erremedioak billatzen
aleginduz.

6.- Sagar onaren billa.
Sagardo-Maia eratu zanetik (2.005) iru ikerketa bi-
deratu dabez:

1º Merkatu ikerketa. 2º Sagastien ikerketa 3º upa-
tegiatako ikerketa.

Orren emaitzeagaz arlo guztian ezarriko diran
erabagiak artzea da asmoa.

**7.- Istorian zear leen
aipamenak Euskal Errian.**

Leen zita idatziak. Luis Mitxelenaren “Tex-
tos arcaicos vascos” liburuan irakur daiteke-
nez, sagar ta sagardoari buruzko leen idazkiak,
XI mendekoak dira.

8.– Sagar izenetik eratorritako toponimoak.

Dokumentaturik dagoen leen toponimoa “sagarro” itza da, 1291an Benafarroan agertutako dokumentu batean .

9.– Sagardoa ta Foruak.

Sagar ondoaren babeserako ezagututen diran lenengo arau idatziak, Lapurdikoak dira. Ricardo Leoi-biotzak 1189 urtean idatzi ebazan.

Arau onein arabera, edozein animaliak debeketuta eukan sagastian sartzea eta sagarrak lapurtzen arrapatuten eben gaizkillea zigortutea agintzen eben. Amaika adibide aurki daikeguz onen inguruan.

10.– Sagardoaren inguruko atrautegia.

Asiera batean sagardoa etxeko konsumorako soillik erabilten zan.

Denboreagaz sagarra ta sagardoa ordainketarako erabilten asi ziran. Baña benetako merkaturatzea portuak eta bide barriak eraiki ebezenean agertu zan.

Legeen arabera kanpoko sagardoa ezin zan errira sartu bertakoa amaitu arte. Alan be, erriko kanpoaldean saltzeko baimena eben.

Bitxikeri antzera aipatu daigun Gipuzkoako Foruan XXXIX tituluan, 2. Kapituluian, sutei buruzkoan, irakur daikena: “ Sutea izan eta ur faltan egonaz, ardaoa ta sagardoa sua amatetako erabiltzea onartzen da, bai ta etxeak botatzea be, kalte-ordaña bearrezkoa balitz be”.

11.– Eguneroko edaria.

Euskalerrian sagardoak euki dauen presentzia eta garrantzia ez da izan gaur ezagutuen dogun modukoa. Gure aurreko euskaldunentzat sagardoa eguneroko edabea izan zan, otordu guztietan janariari laguntzeko erabilten eben edabea.

Zenbait kasutan ordainketa egiteko edo ta festa egiteko be erabiltzen eben.

12.– Noiztik sagardoa Euskal Errian.

Sagardoa Euskal Errira zelan etorri zan ez dago bape garbi.





13.- Auzolana, baserrierien oñarri.

Eun edo berreun urte atzera egiñez, baserriz jositako bizimodu, testigu inguru batean kokatuko geunke sagardoa. Garai artan sagardoa baserrietan egiten zan. Baserriak eta lurak emoten eben lanez gain, sagardoa egitea zan beste zereginetako bat. Etxerako egiten eben sagardoa.

Auzoan beti izaten zan dolarea ta matxakadun baserriren bat. Bertan jotzen eben sagarra inguruko baserri guztietakoak.

Urtean bein egiten eben sagardoa. Auzo guztiak parte artzen eben. Lenengo sagarra jotzen eben, pisiorekin edo matxakan. Ondoren, dolarean ipintzen zituzten sagar puskak. Estutualdi ugari emon bear izaten jakozan zuku guztia atarartzeko.

Lenengo estualditik ataratako muztioa sagardoa egiteko erabiltzen eben, eta beraz, etxeko upelik oberenean gordetzen eben.

Ganeko estualdia egin aurretik ura botatzen zan dolarera eta ortik ateratzen zan muztioa pitarra egiteko erabiltzen zan.

Pitarra zan egunero edateko erabiltzen eben edaria. Sagardoa egun berezietarako gordetzen eben.

Seme alaba askoren familiak izaten ziran. Danak maian ezarri ta txandaka joan bear izaten eben seme-alabak sagardoa ekartzera, aitik ala aginduta.

14.- Sagardo barria dastatseko festa.

Sagardoa jotzeko eta estutzeko lan au amaitutakoan, sagardo barria egin ebela adierazteko festa egiten eben.

Erriko plazan edota baserriko atarian biltzen ziran auzokideak. Janaria ekarten eben eta muztio barria edaten eben.

Nafarroako Arizkun errian, esate baterako, sagarra estututen erabillitako oletako bat artu eta bertan pisiogaz jotzen eben, txandaka, sagar jotzea errepresentau gurean lez.

Onegaz batera “Kirikoketa” izeneko kantua kantatzen eben: “Kirikoketa, kirikoketa / kirikoketa, koketa, koketa. / Sagarra jo dala, / sagarra jo dala, sagarra jo dala, / jo dala, jo dala”.

Txalapartaren oñarria emen egon daitekela uste da. 1920 urterarte mantendu dabe oitura au Arizkunen. Iru urtetik onantza oitura au berrezkuratu dabe, “Jo ala Jo” izeneko kultur elkarteari esker.

Barrikotea.

Auzokideak biltzen ei ziran alkarrekin otordua egiteko. 100 litroko barrika koxkor bat artzen eben barrikoterako eta a ustu arte edaten eben. “Ardi zarrren bat akatu ta lagun artean afaltzen zan, bakalloa tomateagaz pipermin dexente botata, eta sardin zarrak. Orixe izaten zan menua. Ez egoan besterik”, diño Gregorio Berrotaran ondarrabiarrak garai bateko kontuetan murgilduta.

**EUSKERAZALEKO
LAGUN ZARIENAK,
ARTU BENE BENETAN,
ZORION BETAKEAK.**

**EUSKAL ERRIKO KROSSAN
DOZUEZ IZENAK,
SEGI TA SEGI AURRERA,
BASTARTUZ BILDURRAK,
SARIA LORTU DAIAN
BETI GURE EUSKERAK.**

IZADIA ZAINDU EUSKAL TOKI-IZENAK MUNDUAN ETA EUSKAL EDESTIA II



1. Izkuntza eta edesti arloan euki dodan idazlari batzuren laguntza

1.1. Zubiaga ta Legarretatar Felixek, bere argitaratutako liburuan *Origen y desarrollo del lenguaje*⁽¹⁾ 49n orrialdian esaten dau: Munduko gizarteetan Mintzoeraren jaiocera eta beren azalkuntzaren azkerazko edestian, Munduko gizaren jendekuntzazko edestia dala bere neurri guztietan.

Orregaitik, Euskerazko mintzoera bat bezala, Iza diak daukazan irudizko eredu nagusietan ikertu eta ipuin bezala adiarazia dala, edesti ta edestiaurre onena, gizatasunagaitik inoz azaldu, esan, edo kon-tatu dana.

Maixutasunezko lan ederra benetan Felix Zubiaga ta Legarretak egin dauana. Euskaldun guztiak eta batez be jakitunak irakurri bear leukiena, gure Euskal Askatasunezko Demokrasiaren sinismenean sendotu daitezen eta European erakutsi, bera dala orain be asieraren “izar”ezko argibide onena, izadi onen giza, zentzutasunezko “orubean” eseri edo kokatu gaitezana. (orubean emplazamiento de ORU = SOLAR+ be = bajo).

Arriaro berriko berbea, Griegoen ots izti edo fonetikian orube = europa, solar europeo esangura dauana.

Felix Zubiagak, bere “Vascoeuropeismo versus Indoeuropeismo” 56 orrialdeko III n. zatitik datorrena, liburuaren 49n. orrian: “izen jakintza (la

(1) *Según el vascuence.*

Onomàstika), jakintzaren oroimena”(3): An, Utu, Ra, Ilu, Ka, Ba eta As en eredu nagusiren(4) izkin bateko berbak aztertu ta argitutako amaieran ondorio lez esaten dau: “Izkin-bateraño aztertu egiten dauan mintzoera edo izkuntza batek, jatorriz edo sortzezko izkuntza dala”. Izkin bateraño eltzea, eredu nagusiren ozenezko(1) iturria argitzea dalako berberaren mintzo edo abots sorkuntzan. Eta Euskerea, al dalako izkin bakarreraño eldu, orain ezin da esan alderatzaileak(2) esaten daben antzera, “Euskerea jatorriz, ezagutzen ez dan mintzoera bat dala”.

Mintzoeraren oguzpeneko(3) jaiokeran, bera dalako berezko aitortzaile.

Orregaitik, mintzoeraren jatorrizko itz bakar bitetik eta onen eredu nagusiko leen analogi arauz, beren jaiokera argitzen dauan “IZKUNTZ BAKARRA”.

Euskereak, inguruan daukazan oraingo eta esaten daben jatorrizko diran mintzoerak baiño obeto ezagutzen dau beren jatorritasunezko edestia.

Bere esangura, mintzotasunezko gorputz guztiaren alkartezko itzaren antolakuntzan, ta entzutezko abotsetan, irarrita daukazelako.

Zeruko(4) eredu nagusiaren antzezko(5) zuzentasunetan “Izadi-iztia”(6) dalako, gizadiaren jakintzan “gogo-iztia”(7) ta “gizadi-iztia”(8) da, bai dirdaitasunezko gogarketa(9) gizartearen eredu nagusiaren antzezko zuzentasunetan eta teologia da, oneik zeruko eredu nagusiagaz bat egiten daben.

Euskereak, Sumerioen izen jakintzazko irudimenaren eredu nagusiko arlo aundietan eta gramatikan be esku artzen dau, Ugarit ta Ejiktoren azturazko jakintzagaz jazten joan zalako.

Izkuntz edo mintzoeraren trebetasuna ipuiezko asmamena(10) da, baiña eredu nagusian berba barrien jaikunezko kokamenaren(11) trebetasuna be bai, aiek ez dabelako galtzen abotsik, antolamenduzko zentzurik, ez aintzintasunik, bieri oso osoan aurreratuzota burutakizun barrien artu emonetan.



(3)Jakintzaren Oroimena=memoria sapiencial.(4)Eredu-Nagusiren = arquetipos. /// (1) Ozenezko = sonoro. (2)Alderatza-illeak= comparatistas. (3)Mintzoaren oguzpneko = pronunciación articulada. (4) Zeruko = divino. (5) Antzezko = analogias. (6) Izadi-iztia = cosmología.(7)Gogo-iztia = almápsicolò-gica.(8) Gizadi-iztia = antropología.(9) Dirdaitasunezko gogarketa = meditación refleja. (10) Ipuiezko asmamena = imaginación mítica.(11) Jaikunezko kokamenaren = engarce ritual.

Izkuntz edo mintzoera gintza baten lojrikak, mitolojia beste balio dau, biak alkartu egiten diralako gaiezko Izadi onen antolakuntzan eta Arri Aro Barriko gizonen oldozmenean.

Berbea, esan izaneko⁽¹²⁾ elburua bete dagian, atsegintasunezko ardura aundiz zaindu zan beren oituzko arau zaletasunean.

Dana, Izadi onen berezko antolakuntzagaz egokitzeko, oroimenaren atzerakadarik ez daiten egon.

Bere galduerak, danoen oarkabean atzerakada galanta egin ebalako, ele jakitunezko gorputza edo talde osoa ez dagoanagaz bir jabetzen, ermeneutika edo adierazketaren gabetasunean dagozelako.

- 1.2. Nuñez ta Astraintar Luisen: “El Euskera Arcaico” (extensiòn y parentescos) liburutik be bai, zeaztasun batzuk artzen dodazalako.
- 1.3. Euzkadi Online: “la primitiva lengua de los antiguos europeos”. Interneteko elbidea: email@euzkadionline.com
- 1.4. “TOPONOMIA VASCA EN EUROPA”.
- 1.5. “Gran Diccionario Enciclopedico Ilustrado”. Selecciones Del Readers Digest.

2. Europako jakintsuen esanetan, Kromañon denborako giza jakituria gaurko gizajeneak zelan dagozan.


Elisabeth Hamel, berrien idazlea; Theo Wenne-mann, jermaniar ele jakintzaren maixua, eta Peter Foster, Kanbridgeseko ikastetxe nagusian jenetikaren irakaslea diranak eta irurak bat eginda, auxe da baieztatuten dabena (leen Wilhelm Humboldt ele-jakitun edo izkuntzalariak eta orain beste jenetista barri batzuk be bardiñ esaten dabena): “Europaren oiñarrizko gizartean edo jendearen jenetan euneko zenbakitik, irurogeita amabost Omo Sapiens, Kromañoi edo Euskaldunak dirala eta euren oiñarrizko izkuntza Euskerea zala”.

3. Orren frogagarri batzuk.

Homo Sapiens Afrikan sortu eta ugaritu ta, WURM deritxon azkeneko izotzaldia urtutzen asi zanean, orain K.a. 14.000 9.000 urte Magdalenien-



(12) Esa/nizaneko = decir/ser.



se eta Aziliense, gorengo Paleolitiko edo arri aroko denboran Europatik zabaldu eta erritu egin zan.

1.868an Frantziako Ego Sartaldean Dordoñako lurraldeetan Perigoreko errian dagoan Kromagnon aitzuloan, Goi Arri Aldiko asieraren giza azurrak aurkitu ebezan: Gizon zaar batenak, adiñeko gizon bi, emakume bat eta aurtxo batenak.

Danak buztin gorriagaz margoztuta, zirgillo edo beso ta samako estunakaz⁽¹⁾ eta saretxo edo xirris-tak itsas maskorrakin aristatu edo ondozkatuta egon ziranakaz apainduta.

Eta giza-azurrak geiago: Frantziako beste lurralde batzuetan, Txekoslovakian, Erdi Ugarte onetan, Alemanian, Suezian, Italian eta Polonian be aurkitu ziran.

Gizaki onen buru azurrak, gaur daukagun giza itxuraren bardiñ antzekoak ziran eta eroaten ebezan apainkeriak, bilbe⁽²⁾ aundikoak zirala esan eben.

Oneik dira Kromañon giza esan dautsoenai eta Europaren arbasoak.

3.1. Kromañoien IZKUNTZA.

Gaur, jakintsuen esanetatik dakigu, Homo Sapiens edo Kromañoi denboran, euren arteko ulermenean egokitzeko, sorkuntzazko asieratik jakintzazko azturan oituratzeko euki eben izkuntza, “len ereduko euskerea” zala Atlant Itsasotik Indiaraiño. Iñorentzat ez leuke izan bear sinisgogorkeri bat, Homo Sapiens edo Euskal Kromañoi giza izan zalako zabaldu zana. Besterik, egoan ba?.

Alan dala esan leike. Jakintsuen ikerkuntza bide-tik, dagozan izkuntz guztien sorkuntza ta senitasunak jakinda, EUSKEREAA asikoen sorkuntza baiño askoz aurreragokoa izanda, galdu egiten zaielako.

Afrika, Europa ta Asian orregaitik, EUSKEREAAK ainbeste argitu leiken tokiaren izenetan

(1)Beso ta samako estunakaz = pulseras y collares. (2)Bilbe = evolución

aurkitzen da: “Aran, Ur, Ibar ta abar asko. Mendi toki, lur, ura, aize, osko eta eurak biziaren uler-menean sartzeko, izendu bear ebezan gauzetan agertzen da.

Emen, Euskerearen ziurtasuna zeaztuteko esan bear dogu, goian, Felix Zubiaga ta Legarretak maixutasunezko adierazkizunean esaten daua: “Izkin bateraiño aztertu egiten dauan mintzoera edo izkuntza, jatorriz sortutako izkuntza dala”.

“Izkin bateraiño eltzea, eredu nagusien⁽¹⁾ ozenezko iturria dalako, berbearen mintzo edo abots sorkuntzan”.

Eta EUSKEREA dalako izkin bakarreraíño eldu leikena, orain ezin da esan alderatzailleak⁽²⁾ esaten daben antzera: “EUSKEREA jatorriz, ezagutzen ez dan mintzoera bat dala”. Bere izatean, bera dalako berezko aitortzaille, oguzpeneko⁽³⁾ mintzoera jaiokeran.

Gaur EUSKEREA orregaitik, mintzoeraren jatorrizko itz bakar bidetik eta onen eredu nagusiko leen analoji arauz, beren jaiokera argitzen dauan “IZKUNTZ-BAKARRA” da.

Atuxa'tar Paul

Zornotza'n 2013'an Urtarrilla'ren 15'ean

(1) *Eredu nagusien = arquetipos. (2) Alderatzailleak = comparatistas. (3) Oguzpeneko mintzoera = pronunciación articulada.*



EUSKERAZALEAK

Urteroko Batzar Nagusia

Epailaren 21ean egunean
EUSKERAZALEAK alkarteak
urteroko
Batzar Nagusia egingo dau
Lenengo deia: 19:00etan eta
Bigarren deia 19:30etan

Asamblea General Anual

El 21 de Marzo celebrará la
Asociación
EUSKERAZALEAK su Asamblea
General anual
Primera convocatoria 19:00 tarde
Segunda convocatoria 19:30 tarde

**ESKERRIK ASKO ETORTZEAGAITIK
EUSKERAZALEAK**

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan)..... zenbakian


..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Euskerazaleak. Colon de Larreategi, 14-2. Tel. 94 423 53 22. Bilbao.

A scenic view of a coastal cliffside. The cliff is dark and rocky, with a winding road that curves along its edge. At the top of the cliff, there is a building with a red roof and a chimney. The sea is visible at the bottom left, with waves crashing against the rocks. The sky is clear and blue.

**Artillero dale fuego
ezkontzen zaigula pastelero.
Eta zeinekin? eta norekin?
Orpo zikinaren alabakin.**

**Orpo zikin, gona luze
atzeko-aldeko erregidore.
Jotzen zioten tarrapatatan,
zergatik neskatxa zatarra zan.**

**Orpo zikin, gona luze
kaleko loiaren erregidore.
Deitzen zioten zarran zan zan,
zergatik neskatxa zatarra zan.**

Gaztelugatxe